

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urriak 22 / III. urtea / 98. zenbakia

Bideo? zer bideo?



Bideoa zer den galde-tuz gero, erantzun franko ezberdinak bildu litezke, hamabost urteko bizitza izanda ere, oso ezezaguna baita oraindik. Tresneria, sormena, teknika eta arte berri bat nahasten dira hitzaren esanahiaren gibelean, eta ezta adituak ere ez dira oraindik ados jartzten. Nafarroako II. Bideo Erakusketak sormenari heldu dio, eta azken urteotan sortu diren adibide paregabeak eskaintzen ditu hurrengo astera arte Iruñeko Planetarioan, xumea bada ere, datorrenaren ideien bat izateko.

Hala ere, batzuek horrelako erakusketaren beharra zalantzan jartzen dute, Nafarroan bertan gaiari buruz dagoen tradizio eta kultura eskasa dela eta. Bideo-gintzan aitzindaria izan den Enrique Urdanozek, horrela, teknikaren «gehiegizko erabilera» kritikatu du, eta atzetik oinarri sendoa ez izana nabarmendu du. Berrikuntza zaila baita iraganik gabe.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Patxi Ezkieta pintore nafarren erakusketa ikus daiteke egun hauetan Iruñean, Kribia galerian hain zuzen. Datorren urriaren 30a arte izanen da ikusgai, eta bertan, artistak Marokkon egindako azken lanak aurkezten ditu.

Ramon Roig artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Muzizipalak Gotorlekuan duen aretoan. Pintore honen lanak ikusteko ordu-tegia hauxe da: lan egunetan, 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

P. Azketa, X. Morras, M. Rojo, L. Garrido, P. Oses, A. Sada, Julio Pablo, J. Resano eta P. Salaberriren erakusketa egonen da ikusgai, urriaren 29a bitarte, Iruñeko Pintzel galerian.

ZINEMA



'El proceso de los tres millones' izeneko pelikula botako dute heldu den asteartean, urriak 26, Olite zinemetan. Nafar Ate-neoak antolatuta, Zine Sobieta-rrari buruzko zikloaren barruan dago. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

ANTZERKIA



'El pupilo quiere ser tutor' antzezlanaz plazaratuko du igande honetan, urriak 24, Teatro Paraiso taldeak. Udazkeneko antzerki zikloaren barruan, Nafarroako Antzerki Eskolako aretoan izanen da, San Agustin kalean, arratsaldeko 20.00etan hasita. Sarrerak, 300 pezetatik salduko dituzte.

'Txap, niri bost' izeneko antzezlanaz plazaratuko du Sambhu Teatro taldeak heldu den asteazkenean, urriak 27, Kastejonan. Arratsaldeko lehen orduetan hasiko da, herriko Kultur Etxean.

BERTSO SAIOAK




Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariekin bertso afaria izanen da gaur, urriak 22, Berako Agerre auzoko Elkartean. Elkarrekin berak antolatuta, gaueko 21.00etan hasiko da.

Amaia Telletxea. Estitxu Arozena, Sebastian Lizaso, Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Imanol Lazkano, Angel Larrañaga, Iñaki Murua eta Andoni Egaña bertsolariak ariko dira igande honetan, urriak 24, Altsasun, Nafarroa Oinezeko ekitaldien barnean, eguerdiz.

Gorramendi

Baztango mendirik ederretakoa ezagutzeko parada izanen dugu asteburu honetan, Gorramendik, beré 1.084 metrotan, bailarari buruz izugarriko ikusmirak eskeintzen baititu. Horrela, inguruko mendiak ez ezik, Nafarroa Behereko hainbat herri eta mendiak ere ikus daitezke bertatik, baina, hori bai, eguraldia lagun izatekotan, frankotan paua atzen baita kaskoan eta magaletan lainoa. Gorramendi, baina, bere edertasunaz landa, bertan EEBBetako armadak paratu zuen basearengatik da ezaguna. Kaskoan radarrerako dorre bat paratu zen orduan, eta inguruan oso ezagunak izan ziren 'espiak' eta 'CIAko agenteei' buruzko historiak urteetan. Egun dorrea deuseztaturik dago, eta mendia berriro baztandarrena da. Hor dirau, baina, amerikarrak zabalduzako pistak.

Otsondoko gainetik eskuinera ateratzen den bidea hartu behar dugu, eta lehendabiziko gurutzean ezkerrean jo, eta bigarrenean, eskuinera. Hortik ekingo diogu bideari, Telefonicak Gerezietan izeneko dermionan duen errepetidoretik, hain zuzen ere. Ibilbide laua eta garbia da, eta, esan bezala, ikusmi-



ra ederrak eskeintzen ditu inguruko eremuen gainean. Luze gabe helduko gara Gorramendira, eta bertan ikusi ahal izanen dugu Baztan osoan hain ugari den harri gorria, etxeetan hain erabilia. Gorramenditik Gorostiko leporainoko bidearen bi aldeetan Arizakun eta Urrizate izeneko amildegia ikus daitezke, barriatutako baserriez tindaturik. Inguruotan biltzen dira Nafarroako baserri urrunenak, sakoneko Nafarroa, hain zuzen.

Gorostiko lepotik dator maldarik gogorra, 800 metrotatik ia 1.100ra igo behar baitugu. Irubetakaskoko ikusmira dastatu ondoren, buelta bide beretik egin behar da. Ikusmirak ez ezik, sai arre ikusteko parada izanen dugu, hain segur, bidean, gainontzeko kaskoan gainean eskeintzen duen atalaia oso estimatzen baitute harrapakari hauek. Gainera, ganadua ere oso ugaria da magaletan, eta, beraz, janaria.

ASTEKO PERTSONAIK



Jorge Oteiza
Eskultorea

Bost minuto besterik ez zuen iraun Jorge Oteiza eskultorean kontrako epaiketak, akusatua ez baitzen Entzutegira agertu. Legez kanpo armak edukitzeagatik zabaldu zuten prozesua eskultore famatu honen aurka, eta fiskalak, hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuten. Asteazkenean, akusatua agertu ez arren, fiskalak berean segitu zuten, eskaerari eutsiz. Angel Ruiz de Erentxun abokatuak, berriz, absolutzioa eskatu zuen. Gertakizunak 1991ko azaroan izan ziren, Itziar Carrero Oteizaren emaztea San Miguel ospitalean zegoela, «arreta gehiegi eskeintzen ez ziotela eta», eskultoreak pistola bat erakutsi zuenean. Ondoren, polizia hiru pistola antzeman zizkion, eta horiek edukitzeko baimenik ez zuenez, epaiketa egin diote 86 urteko artistari.



Jose Maria Rodriguez Otxoa
Hizkuntz Politikarako burua

Jose Maria Rodriguez Otxoa izanen da Nafarroako Gobernuko ordezkari bakarra igandeko Nafarroa Oinezan egunean, bertako iturriek aditzera emandakoaren arabera. Juan Cruz Alli lehendakaria eta Javier Markotegi Hezkuntza sailburua, horrela, ez dira agertuko Altsasura, joan da bila zergatik. Iazko jaialdian ere ez zen izan Alli jauna, orduan Expo zela eta, Sevillan zegoelako. Markotegi izan zen bertan. Atarrabiako Oinezera joan eta polemika sortu ondoren, lehendakaria ez da ausartu beste edizioaren batera joatera, eta aurtengoan, aitzakirik ere ez du jarri. Gauzak, garbi dago, okertzen ari dira. Gainera, Altsasun euskararekin arazo asko dituzte Institutoan, D eredua eskatu eta ematen ez dietelako.



Mikel Lasarte
NUPEko ikaslea

Tasen igoera dela eta, greba eguna da gaur Nafarroako Unibertsitate Publikoan, asteazkenean egindak asanblada batean horrela erabaki baitzuten. Greba hau NUPEko ikasleen hiru sindikatuek deitu dute, Zabalik, Ikasle Abertzaleak eta Unibertsitateko Taldea, hain zuzen. Mikel Lasarte Ikasle Abertzaleak taldeko prentsa arduradunak garbi adierazi zuen «tasen igoera hau ezin dugu onartu, eta horretarako, Markotegirekin bilduko gara datorren astean». Hiru sindikatuek plataforma bat osatu dute Gobernuarekin negoziatzeko. Era berean, Nafar Erakunde Publikoek «guztiona den unibertsitate proiektu hau aurrera eramateko konpromezua hartu behar luketela» uste dute, eta horretarako, ahaleginak egin behar direla.

AHAZTU GABE!

IRUÑEKO Planetarioak 'Las vueltas que da la vida' izeneko erakusketa zabalduko du gaur ostirala, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Mundu osoan ugari diren zirkuluei buruz, erakusketaren munduan eredu berri bat ezarri nahi du muntai honek, gai eta mota askotako ekarpenekin, baina gai zehatz baten inguruan, befi ere. Pintura erakusketek, normalean, arkeologia edo teknologia erakusketen mintzaira ezberdinek erabiltzen zuten, baina honetan dena dago nahastuta. Bertan ikusi ahal izanen dira landare eta animaliak, hiru dimensio dituzten tramankuluak, eguneroko tresnak, grafiak eta marrazkiak, argazkiak, ordenagailuak, behialako lanabesak, eta abar. Dena zirkuluarekin lotuta.

Erakusketaren zabalpenak, Madrilan burutzen ari den Planetarioen Zuzendarien Nazioarteko Kongresuaren partaideei egingo zaien harrerarekin eginen du bat, eta ondoren Kontzertu bat izanen da Iruñeko Katedralean, Musika Kapelarekin, Aurelio Sagasteta maisuaren zuzendaritzapean. Urria eta abenduan zehar ikusi ahal izanen da erakusketa, eta Granadako Zientzien Parkeak eta A Coruña-ko Zientzien Etxeak ekoiztua da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.


XABIER LETE abeslari famatua izanen da gaur goizean Euskalerrira irratian, 'Zokobetailu' saioan. Goizeko hamarretan hasita, ordu bete irauten du saioak, eta musikariarekin hitz egiteaz gain, Altsasuko Iñigo Aritza ikastolakoekin ere elkarrizketatuko dira, azkeneko prestakizunak nola dauden zehazteko. Egunero bezala, korresponsalen kronikak ere izanen dituzte.

Meteorologian aurrerapenak

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Meteorologi Sare Automatiko ofizialki inauguratu zuten asteartean Noainen. Sarea, Nafarroa osoan zehar banatutako 25 eguraldi estazioek osatzen dute, eta hamar minuturo informazioa bidaltzen dute Noainen dagoen estazio nagusira. Era honetan, une bakoitzeko eguraldiaren egoera ezagutu ahal dute bertako teknikariek. Uholdetaz ohartarazteko, adibidez, abantail galanta da sare automatiko berria. Nekazaritzan edo herrizaingoan ere, aplikagarria gerta daiteke sare honek lortutako informazioa.

Meteorologi Sare Automatikoak, Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza Saila eta Espainiako Meteorologi Institutu Nazionalaren elkar lanaren emaitza da eta 1990. urtean jarri zen martxan behin-behinekoz. Bere abantail edo berrikuntza nagusia, berehala egoera atmosferikoaren berri emateko duen gaitasuna da. Sarea osatzen duten 25 estazioetatik hamaseik tenperaturari, hezetasunari eta haizearen norabide eta abiadurari buruzko informazioa biltzen dute eta gainontzekoek, haizeari buruzko datuak bakarrik. Informazio hori, telefonoz bidaltzen dute hamar minuturo Noainen eta bertako Nafarroako Ikerketa eta Saiakuntza Zentroan (CEIN) grabatu eta hileroko jaso egiten dute. Aurreko



Eguraldiendako estazioek bost minuturo bidaliko dute informazioa.

sistemarekin, berriz, bi eguneko atzerapenez jasotzen zizutten datuak, gehienetan.

Nafarroako Nekazaritza kontseilariak sare automatikoak nekazaritza, industria, herrilan, trafiko eta herrizaingo eremuetan, adibidez, izango duen garrantzia azpimarratu zuen.

«Eguraldiari buruzko datuak berehala edukitzea oso garrantzitsua da egoera larriari aurre egin ahal izateko, informazioa garaiz lortuz, edozein hondamendiren aurka neurriak hartu ahal izango baititugu», erran zuen Jose Cruz Perez kontseilariak.

Sakana

Euskarazko tailerrak zabalik oraino

E.E. / IRUNEA

Lakuntza, Etxarri-Aranatz, Urdiain eta Altsasuko Udalek eta Sakanako Mankomunitateak euskarazko tailerrak antolatu dituzte. Eskaintza zabal honek, euskararen erabilpena areagotu, euskal kultura zabaldu, eta sormena euskaraz garatzea du helburu, antolatzaileen hitzetan. Ikastaroak hauek izango dira herri bakoitzean: Lakuntzan eskulan tailerra egongo da astearte, ostegun eta larunbatetan, 15.00etatik 17.00ak arte. Etxarri-Aranatzen, berriz, brikolaia tailerra antolatu dute, astean bitan eta bi orduz izango dena. Irrati tailerra ere izango da bertan.

Urdiainen, bestalde, bideo tailerra antolatu dute, eta bestalde, ileapaindegintza ikasteko aukera izango dute Urdiainen, astelehenean hasiko den tailerran. Altsasun, azkenik, kantu zahar eta txalaparta tailerra egongo dira.

Matrikula epea atzo bukatzen bazen ere, antolatzaileek luza-



Ikastaroen matrikuluak mila pezeta balioko du.

ztea erabaki dute, eta, beraz, ikastaro hauetan parte hartu nahi duenak hurrengo lekuetan eman ditzake izen-abizenak: Altsasuko Udalean, 562161 telefonora deituz. Urdiaingo Udalean, 562993 telefonora. Etxarri-Aranatzen 460004 telefonora dei

eginez eta Lakuntzan 576261 telefonora. Bestalde, Sakanako beste herri bateko bizilagunek Sakanako Euskara Zerbitzuko 460751 telefonora dei egin dezakete. Matrikulari dagokionez, berriz, 1.000 pezeta ordaindu behar da tailer bakoitzeko.



FALTZESko liburutegiak ekologiari buruzko irakurketarako gida bat osatu berri du, gai honetaz dagoen eskaintza eskuragarriagoa egiteko. 25 liburu orotara, heldu zein haurrentzako, 'Greenpeaceren historia', 'Muerte silenciosa', 'Amazonia' eta antzeko beste titulu interesgarriekin. Heldu diren hilabetetan gai ezberdinei buruzko beste zenbait gida azalduko dira, hala nola gastronomia, edo zinemaz.

AGOITZen zabaldu da aste honetan Nafarroako bigarren Gaztebide, gazteendako informazio-gunea, hain zuzen ere. 'Bilketa' kultur taldearen ekimenez, informazio-gune hau taldearen asmo hirukoitzaren barruan dago: kultura, gaztedia eta zaharrak. Zerbitzu honekin batera, liburutegia eta turismoa argibideendako bulegoa zabaldu da.



SANTAKARAko Fermin Azagra gaztea izan da Nafarroako Gobernuak martxan paratutako Esne Erreserbarako Egitasmoan sartu den lehendabizikoa. Egitasmo honen bidez behiak kendu dituen lehendabizikoa, hain zuzen ere. Ganaduzaleendako dauden garai txarren adibide garbia, 28 urterekin, eta bertan lau urte aritu ondoren, herritik alde egitea bururatu ere bururatu zaio, lanik gabe egonda. Ferminek duela zortzi urte lau milioi pezetako kerdiotan sartu zen, eta zortzi urte hauek behar izan ditu kitatzeko. Izan ere, 32 pezeta ordaintzen baitzioten kilo esne bakoitzeko, eta berari 25 kostatzen zitzaion bakoitza. Zazpi pezeta horiekin argia, albaitea eta inbertsiorako behar zuen, eta beraz, azkenean itxi behar.

Tafalla

Emakumea eta musika zikloa

IRUNEA

'Emakumea eta musika' izenburupean eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak (ONCE) antolatuta, bertako ki-deak diren Kontxi Darijo harpa joleak, Ana Maria Crespo piano joleak eta Mari Mar Quiroga 'Maruca' kantariak kontzertua eskainiko dute Lizarra, Tafalla eta Tuteran, hilaren 25a eta 29a bitartean. Erakundeak herri hauetako udaletako kultura sailen laguntza izan du.

Ez da hau emakume hauek eskaintzen duten lehen kontzertua, ezta gutxiago ere. Kontxi Darijok, adibidez, hainbat txapelketatan parte hartu eta saria lortu du.

"ZAPATARI" ZAPATEGI ARTISAUAREN INAGURAZIO FESTA




URRIAREN 23an (LARUNBATA)

EGUERDIKO HAMABIETAN

25zenbakiko ANSOLEAGA KALEAN

● Lunch, sagardoa, ardoa, trikitixa, txistulariak, dultzaineroak, e.a.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako xake txapelketako lehenengo jardunaldiaren partida, 1993ko urriaren 16an jokatu.

Iñigo Ganuza, 2.015 ELOkoa (Lizarrako Alekhine 'A')—Jesus Javier Cortes, 2.255 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna).

1.e4,c5; 2.d3,g6; 3.g3,Ag7; 4.-Ag2,Zc6; 5.Zd2,e6; 6.Zh3,gZ-e7; 7.0-0, 0-0; 8.f4,d5; 9.c3,b6; 10.-Zf3,Aa6; 11.Ge1,e4; 12.e4,- Dc8; 13.Dc2,Gd8; 14.Zf2,Ab5; 15.-Ae3,a5; 16.a4,Aa6; 17.aG-d1, Dc7; 18.Zh4,Gd1; 19.Gd1,Gd8; 20.Gd8 xa, Dd8; 21.Af1,Af1; 22.-Ef1,Zc8; 23.Zf3,Zd6; 24.Dd3,- Dc7; 25.e5,Zf5; 26.Ze4,- cZ-e7; 27.c4,h6; 28.Af2,Zc6; 29.g4.

Orain arte, partida oso berdindua joan da. Txuriek gehiago nahi dute. Baina bere defentsa ahuldu egin da jokaldi honekin.

29...fZ-d4; 30.Zd4. Ikus koardoa. Peoiarekin jan behar dute. Eta alfíl txuriek geldi geratu behar du. Bestela, 'Dd8' bere bukaera baillitzaiteke. Orain hasiko da benetako borroka. 30...d4; 31.Zd6, Dd7. Gazteluko peoiak zeharka mehatxatzen du, eta txuriek utziz gero jokaldia etor daiteke (Dd1 xa). 32.b3,g5. Orain txurien zaldia da arriskuan dagoena. 33.Ad4,f4; 34.De4,f6. Oso jokaldi ona. Gainera, erregearen parean oso toki ona lortu du.

35.Ab6. Desegokia. Bere defentsa suntsitu du. 35...Ze5; 36.c5. Beharrezkoa. Damari bidea ixteko. Baina alfila jokoz kanpo gelditu da. Oso posizio polita da. Beltzen kontraerasoa ez da erraz ikusten, baina izugarritzko jokoa daukate. 36...f3; 37.Aa5,Af8; 38.Dd4,Dg7; 39.h3, Dg5; 40.Ae1,h5; 41.Ze4,Df4; 42.-h5,Eh7; 43.c6,Dh2; 44.Af2,Dh1 xa. Txuriek partida utzi zuten, borroka oso ederra eskainita.

Txamantxoiaren igoera

XABIER HUALDE

Udazkeneko igande batean, Txamantxoi mendirantz abiatu ginen Iruñetik, nahiz eta eguna hodeitsua izan, lehenengo egunean erabaki bait genuen. Goiz hotz bat zen, eta autoa hartu eta Belaguarantz abiatu ginen. Ordu eta laurden bat geroago han ginen. Zerua Iruñean bezain hodeitsua zegoen baina ez zuen euririk egiten, hotza egiten zuen eta izugarritzko haizea zegoen. Hau ez da mendira joateko eguraldirik hobereana, baina hala ere, botak eta berokiak jantzi eta gero ibiltzeari ekin genion.

Lehenengo ibaia igaro behar genuen. Gehienetan ur gutxirekin jeisten da, eta erraz igaro

daiteke busti gabe, baina oraingo honetan ibaiak normalean baino ur gehiago zeraman, azken eurriak zirela eta, eta oinak busti behar izan genituen. Orduan ibiltzeari ekin genion. Belardi bat igaro eta gero pinudi batean sartu ginen, eta laster aurkitu genuen zuhaitz enbor moztuak jeisteko pista zabal bat, eta hemendik igozteza erabaki genuen. Pista malda handikoa zen eta oso luzea gainera.

Geroago, pistari jarraituz, basoa irekitzen hasi zen, eta berehala basoa bukatuz zen. Orduan malda leundu zen, eta hor haize izugarria zebilen, ez bait zeuden zuhaitzak gu haizeaz babesteko. Aurrera jarraitu genuen belarrez estalirik aldapan zehar, eta

gero eta malda handiagoa zen. Azkenean heldu ginen tontorre-ra. Izugarritzko haizea zebilen, eta horregatik azkar jeitsi ginen, baina lehen baino ezker alderago joan ginen, eta horrela pinudi ondoan zegoen pagadira iritsi ginen. Bertan gosaldu genuen.

Gosaldu eta gero pagoetako basotik jeisten hasi ginen. Oso polita zegoen, zeren eta urtaro honetan hostoek kolore gorri eta laranjak hartzen dituzten, eta batzutan baita horiak ere. Basoak atzean utzi eta belardia igaro eta gero ibaian berriz busti ginen. Dena den autora iritsi bezain laister botak kendu eta zapatilak aldatu genituen berehala, eta gero etxera itzuli ginen bazkaltzera.



Erriberri eta Erribera

A ski ezagunak diren bi izen horien gainean arituko gara ondorengo lerroetan. *Olite*, Oihenarten hitzetan, *Vasconum lingua Erriberri dicitur*, hots euskaldunek Erriberri ziotela irakurtzen dugu *Notitia Utriusque Vasconiae* izeneko liburuan. Fidatze-koa da mauletarra kontu hauetan. Horri esker ikasi dugu euskaldunek *Anso-ri Berari* esaten ziotela. *Puente la Reinari Gares...*

Hala ere objekzioen bat egin lekioko berak ematen duen itzulpenari. Ez dirudi hain garbi dagoenik *Olite= Erriberri* ekuazioa. Oihenart da horren berri ematen digun iturri bakarra. Ez toponimia txikian, ezta euskaldunen ahozko usadioan ere ez da izen hori aurkitzen. Bigarren objekzioa honako hau genuke, *Herri Berri= Hiri Berri* 'oppidum noum' itzultzen du zuberotarrak baina toponimian herri hitzak hartzen ohi duen esanahia bestelakoa da. Horretaz, jandak, Mitxelena ohartu zen eta Erriberriko beste itzulpen bat ematen zuen: *Eskualde berria*, erderetako *Terra Nova* edo *Extremadura* (*extremo= bukaerako herriak, mugako herriak*). Hots Erriberri ez bide zen *Olite* hiri konkretua baizik eta *Olitetik* hegoaldera zabaltzen zen eskualdea. Historiak teoria hau bultzatzen du. *Olite* betidanik izan da menditarren eta Erriberrikoen arteko muga. *Olite* raino zabaltzen zen *Ager Vasconum* delako alderdia, *Olite* raino zabaltzen zen sarrazenoen boterea. Hizkuntza ere ateratzen da teoria honen alde. Lizundiak 1977ko *Euskera* aldizkarian herri 'eskualde' zela demostratzeko zenbait adibide bildu zituen. Iruñeri *Terra Pampilonense*; Estellerri *Tierra Estella*; Deiñeri *Yerri Terra Degense*; Ergoiena. Toponimia txikian ere ugari ditugu herri-z osatutako adibideak *tipulerrri, maizerri*, baita hizkera arruntan ere, erronkariaraz behintzat: *Artakarroa (aztan da) peña errietan* zioen Mendigatxak.

Erriberri terra nova den bezala, Lizundiak *Erribera Tierra Baja* dela demostratu nahi izan zuen. Markin-Etxeberriar, esate baterako, *Er(ri)bera* auzoaren izen ofiziala *La Ribera* da. Egia da Nafarroako euskaldunek Erribera esaten dutela baina, Markinan ez bezala, *Riberatik* hasita *e-protei-koa* erantsiaz *r-z* hasten zen hitzik ahoskatu ezin zutelako. Horrela sortzen zen izenak euskaraz oso esannahi logikoa zuen. Baina *Ribera* erdaraz aspaldian dokumentatzen da. 1321. urtean Miguel de Derendyein *Arcipreste de la Ribera* zen eta 1582an Beriainen bazen *camino real que passan para la Ribera*. Jatorrian latinezko *Riparia* dugu. Beste *Riparia* bat bazen bortuez haratago (Garona ibaiertzean) eta baita leku askotan ere: *Ribera del Duero*. Beraz Erriberri h-z idatz genezakeen bitartean, Erribera ez.

MIKEL BELASKO



Jenero Xumekoak

Ilemoztaileari aditu eta geroko ariketa

Ixilduaz ez zara behin ere damutuko; hitz eginaz sarritan.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

E R A B I Z T I U R R A
J U L B A R A I B A R S
A S L A R R A U N I E T
Z A Z E I T I R R O G I
E I T O Z H E R H I O T
Z B A R I T E I L B D Z
T L D I F B O L Z M E A
O A L G N B A R S T R D
D R A U I S A B I R I G
A D K M N A S K I P T U
M E R R A Z K I N F Z B
L O A I R R A X T E D A

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako Larraun ibarreko 17 herriren izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Bizi Bizian



Ikusmina eta jakinmina begi-bistakoak dira ikusleengan.

JOXE LACALLE

Iruñeko Planetarioak erakusketa nonbait berezia eta erakargarria eskaintzen du egun hauetan eta abendua bitartean. Helize eta kiribilak dira protagonista eta hauek gure eguneroko bizitzan duten garrantzia azpimarratzea du xede nagusia. Bizitza bera kiribila den sinesmena du jende askok, eta erakusketa ikusi ondoren, ideia honen aldekoak ugaltu egingo dira, ziurrenik.

Bizitzaren kiribilak

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Helize eta kiribilak protagonista diren erakusketa zabalik egongo da Iruñeko Planetarioan, urria eta abendua bitartean. 'Bizitzaren birak' izenburupean eta aretoak dituen 200 metro karra-tuetan, landare eta animalia bi-ziak, eguneroko bizitzaren tres-
nak, hiru dimentsiotako piezak, argazkiak, maketak, ordenagailu irudjak eta abar eskaintzen ditu erakusketak, guztiek elementu amankomunaren inguruan: kiribila edo helizea.

Adituek diotenez, Lurra duela 4.500 milioi urte jaio zen, eta kiribilen antzeko gas eta hautsezko mugimendu batek sortuta. Or-dutik hona, anitz izan dira natu-rak sortutako fenomenoak edo gizakumeak asmatutako tresna eta tramankuluak, eta horietari-ko asko, kiribilak. Halaber, na-barmenak dira eguneroko bizi-tzaren beste hainbat arlotan, hala nola artean, musikan, arki-tekturan, gastronomian, tekno-logian, naturan, eta baita zopan ere.

ERAKUSKETA BATERE ARRUNTA Ez da ez Iruñean ikusgai dagoen erakusketa hau, inondik inora, arrunta. Gaia alde-tik datorkio lehenengo berri-


kuntza, berezia eta era berean erakargarria eta bitxia baita heli-ze eta kiribilen mundua. Hasiera batean interesik sor ez dezakeen gaia, behin ikusita, liluragarria suertatzen da. Gainera, aipatu di-tugun teknika ezberdinak —ar-gazkiak, ordenagailuak, bideoak, maketak, eta abar— nahastuz, guztiak erakusketa berean eta xe-de berarekin bilduta, emaitza egokia lortzen da.

Bestalde, erakusketaren izena guztiz egokia dela antzeman dai-teke aretoan sartu bezain laster, kontaezinak baitira gure ingu-ruan helize edo kiribil itxura duten gauzak, matematika libu-ruko kiribil logaritmikoarekin hasi eta komuneko paperak osa-tzen duenarekin bukatuz. Eta bi-txieta zera da, erakusketa ikusi arte ez garela inguratzen gaituz-ten elementuen itxuraz ohar-tzen.

HELIZE ETA KIRIBILEK INGURATUTA

Helize eta kiribilek inguratu gaituzte, edo non daude. Palmondoaren hostoek, jaiotzean helize itxura duen arrastoa uzten dute enborran, ba-rekulkuiluek itxura berekoa dute oskola, baita arraultzak gorde-tzeko amonak erabiltzen zuen saskiak ere. Zineman ikusten di-tugun filmek kiribil itxura dute,

baita hainbat galaxi, armiarma-sare, tresna, joko, bitxi eta aba-rrek. Badira gainera, hain begi-bistakoak ez izanik ere, antzeko itxura duten beste hainbat ele-mentu, hala nola, bizitzaren kiribila izendatu duten ADNak, adi-bidez. ADNak osatzen duen heli-ze bikoitza ikusgai dago era-



ADNren irudia.

J.L.

kusketan. Beste adibidea hatz-marken helizea da eta berau han-dituta ikusteko aukera eskaintzen du 'Bizitzaren birak' erakuske-tak, horretarako prestatu duten monitore baten bidez.

Bestelako erakusketen aldean, gainera, ikuslearen partehartzea bultzatzen du honek, ikuslea, teoriak gain praktikaz ere jabe dadin. Honela, botoi bakarra zapalduz, kearen bidez tornado bat sortaraz dezake ikusleak eta baita bainontzi baten isur-te-giaren mugimendua urez betetako ontzi batean erre-pikatu. Norberak, bere kiribila marrazteko au-kerera ere badu erakusketa ho-netan, hain zuzen ere, Arquime-desena edo kiribil logaritmikoa, antzina marrazten zituzten beza-la.

Helize eta kiribilek inguratzen gaituztela ideia azpimarratzeko ere, musikarik egokiena aukeratu dute erakusketaren antolatzaileek eta aretoan sartu bezain laster, Ravelen boleroaren doinuak erakusketaren atal batetik bestera eramaten du ikuslea helizearen migimendua gogora ekarriz, he-

lize batean gauden ideia nabar-menduz.

Baina ikuslearen partehartzea ez da hemen bukatzen eta bakoitzak bere helize edo kiribila erakusteko aukera ere badu. Ho-rien artean, kiribilak marraztuta daukan gorbata, haizagailua, musika kasettea, ziba, argazki makinaren pelikula eta abar dau-de ikusgai, beti ere, eguneroko bizitzan helize eta kiribilek duten garrantzia azpimarratuz. Azken finean, helize eta kiribilak edonon daude, artean, musi-kan, arkitektu-ran, gastrono-mian, teknolo-gian, naturan,... baita bazkarian ere, horren adi-bideak baitira jaten ditugun makarroiak.

Granadako Zientzien Parkea eta A Coruña Zientzien Etxe-arekin batera ekoiztutako era-kusketa honek agerian uzten du helize eta kiribilek gure egune-roko bizitzan zati garrantzitsua betetzen dutela, nahiz eta gehie-netan ez ohartu, eta edozein le-kuan aurki ditzakegula. Azken finean, bizitza kiribil handi bat besterik ez dela uste duen jende asko ere badago.

Beste erakusketen aldean, partehartzea bultzatzen du honek, ikuslea, teoriak gain, praktikaz ere jabetu dadin.

Estitxu Fernandez

..... Bertsolaria

Nafarroako bertsolari gazteek Zortziko Txikia elkarte berri dute, eta elkarte berri hau izan da, hain zuzen ere, Andres Narbarte 'Xalto' Saria antolatu duena. Estitxu Fer-

nandez lesakarra da elkartearen lehendakaria eta, bere ondoan, gairontzeko bertsolari gazteek Nafarroako Bertsolari Elkartearen eskua lixatu gabe euren bidetari ekin diote.

«Bertsolaritza modan dago»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Estitxu Fernandez aski ezaguna da Nafarroako eta Euskal Herri osoko plazetan. Hamazazpi urteko —«18 betetzear»— bertsolari lesakar hau dugu, hain zuzen ere, sortu berri den Zortziko Txikia elkartearen lehendakaria. Baina bertsolaritza ez da guztia Estitxuren bizitzan eta aurten psikologia ikasteari ekin dio Donostian. Bertsolari, ikasle eta 'lehendakari', gazte elkarte berriaz eta bertsolaritzaren mundu zabalaz mintzatu da lesakar gaztea.

EGUNKARIA.— Nola sortu da Zortziko Txikia elkarte?

ESTITXU FERNANDEZ.— Gure hasierako asmoa ez zen, inondik inora, gazte elkarte bat sortzea. Gure kabuz zerbait egiteko gogo bagenuen baina zehazki ez genekien zer. Azkenik, gazteendako bertso txapelketa antolatzea pentsatu genuen, beharrezkoa zela uste baikenen. Baina antolatu ahal izateko laguntza behar genuen eta Nafarroako Gobernura jo genuen diru eske. Eta noski, dirulaguntza eskatzeko, norbaitek eskatu behar zuen eta hori dela eta, elkarte osatzea erabaki genuen, subentzioa lortu ahal izateko. Elkarte, beraz, beharrezko bultzatuta jaio da, txapelketa antolatu ahal izateko.

EGUNKARIA.— Andres Narbarte 'Xalto' Saria, hain zuzen ere?

FERNANDEZ.— Bai. Bertso eskola ezberdinen artean egiten dira txapelketak, ikastoletan ere ibiltzen gara baina beste zerbait gehiago nahi genuen, hau ez da nahikoa. Gainera, eskolarteko txapelketa idatzia da gehienbat eta ikusle goiak hurrek osatzen dute gehienbat. Guk serioitasun gehiago nahi eta behar genuen, bat-batean ere kantatu ahal izateko. Eta horrela jaio zen 'Xalto'

Bortzirietan badi-ra bapatean kantatzen duten OHoko haurrak, eta harritu egiten naute, nik denbora asko behar izan bainuen».

Saria egiteko ideia. Aurten lehen izan da baina urtero eta herri berean, Goizuetan, errepikatzen asmoa dugu, urtetik urtera hobetuz.

EGUNKARIA.— Zer moduz lehen edizioa?

FERNANDEZ.— Oso ongi, kontent gaude. Benetako txapelketa izan da, puntuazio, epaimahai eta hori guztia zen, zehazki, guk nahi genuena.

EGUNKARIA.— Gazteengandik berrikuntzarik espero zuen jenderik badago baina bertsolari zaharren eskemak errepikatu dituzue txapelketa honetan.

FERNANDEZ.— Bai, agian hala da baina hori zen, hain zuzen ere gure helburua, gure lana serioitasun osoz hartzea nahi baitugu eta hori lortzeko egin dugun txapelketa egin behar genuen. Hala ere, lehen urtea izan da baina ez azkena eta berrikuntzak egiteko beharra dagoela ikusten badugu egingo ditugu.

EGUNKARIA.— Bertsolari gazte gero eta gehiago ari da ateratzen. Zer dela eta zure ustez?

FERNANDEZ.— Egia da, azken urteotan bertsolari gazte berri asko atera da, benetan harrituta geratu naiz ni. Nere ustez, zerikus handia daukate honetan bertso eskolek. Bertso eskolak ere ugaltu egin dira, orain Bortzirietan, Sakanan, Elizondo aldean, Leitzan, eta abar badaude eta bertara haur eta gazte asko joaten



A. BAYO

dira. Bortzirietan, adibidez, badi-ra OHoko 7. edo 8. maila ikasten ari diren haur asko eta bat-batean kantatzen ere aritzen dira. Harritu egiten naute, nik denbora asko eman nuen bertsoak idazten bat-batean kantatzen hasi aurretik, alde batetik lotsagatik eta bestetik nere burua ez nuelako prest ikusten. Gaur egun gazte asko aritzen da bertsotan, modan dago bertsolaritza, agian komunikabideetan eman dioten oihartzunagatik edo.

EGUNKARIA.— Orokorrean, arazorik izan ahal duzue gazteek plazaz-plaza betiko bertsolariekin aritzeko?

FERNANDEZ.— Nik ez dut inongo arazorik izan, ez gazte ez emakume izanagatik. Hala ere, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira hasi zirenean bai, istilu nahiko egon zen. Nafarroako bertsolari helduek ez zuten beraiekin kantatu nahi, gaztegiak zirela erraten zuten eta oraindik 'goxatu' egin behar zutela. Eurek aldiz,

Gure lana serioitasun osoz hartzea nahi genuen, eta hori lortzeko egin dugun txapelketa egin behar genuen».

euren burua plazara ateratzeko prest ikusten zuten eta ez zuten ulertzen zergatik ezin ziren bertsotan ibili. Azkenean, helduek gazteak onartu zituzten eta gaur egun, hortxe daude euren maila erakutsiz. Baina orokorrean, ongi konpontzen gara zahar eta gazteak.

EGUNKARIA.— Zortziko Txikiaren lehendakaria, psikologia ikaslea, zer moduz konpontzen zera?

FERNANDEZ.— Ongi, azken finean lehendakari kargua izena baino ez baita. Hau da, dirulaguntza eskatu ahal izateko elkarte osatu behar izan genuen eta noski, elkarte horrek lehendakaria, idazkaria, eta abar izan behar zuen. Estitxu Arozena proposatu zioten lehendakari kargua baina berak ezetz erran eta ni izendatu ninduten. Idazkaria, berriz, Manu Gomez da eta berak egin beharko du lan gehiena. Nik sinadura jarri eta kitto. Hala ere, elkarteak izango ditu bere helburu zehatzak ere, hala nola, bertsolari gazteei dagozkien eta orain arte Bertsolari Elkarteak edo Bertso Eskolak antolatu dituen hainbat ekitaldi. Adibidez, bertsolari gazteen arteko topaketak, eskola ezberdinen arteko txapelketak, 'Xalto' saria eta denborarekin sortu daitezkeen beste hainbat proiektu ere. Jaio berriak gara eta oraindik ikusteke dago etorkizuneari egin ahal izango duguna.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

